

INFORMAZIOA: GIDARI OFIZIALA – IZENA EMATEA

2014ko Kontratazio zerrendei dagokionez, Gidari Ofiziala kategoriako lanpostu funtzional bakoitzean izena emango da, lanpostu funtzional bakoitzeko ukanbeharrak bete behar direlarik.

– Zerbitzu orokorretako gidarien lanposturako

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako teknikarien edozein titulazio edo baliokidea izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoaren arabera. Hautagaiek baldintza hori bete beharko dute inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

b) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea, inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

– Osasun garraioko gidarien lanposturako

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako teknikarien edozein titulazio edo baliokidea izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoaren arabera. Hautagaiek baldintza hori bete beharko dute inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

b) Maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuak aurreikusitakoarekin bat, osasun-garraioaren arloko profesionaltasun-ziurtagiria edo gaikuntza baliokidea izatea, inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

c) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea, BTP baimenarekin batera, inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

– Emergentsietako ibilgailuetako gidarien lanposturako

a) Osasun-emergentsietako teknikariaren titulazioa edo gaikuntza baliokidea izatea edo izateko moduan egotea, inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

b) B motako gidabaimena edo baliokidea izatea, BTP baimenarekin batera, inskripzio-eskabidea aurkezteko epearen azken egunean.

Era berean, interesdunek **B, BTP, C eta D gida karnetak aurkeztu beharko dituzte izena emateko epean**, gida karneta bakoitza ukanbearra izango delarik ibilgailu konkretua eta indarreango araudia kontuan izanik.